

SELMA HUSLEY: Itsasoetako Erregina

Pako ARISTI

BIZIMODU errazik izan ez duen ikerlaria dugu Selma Huxley. Gazterik alargundu zen eta harrezkero, beka batzuei esker, azkenean atera ahal izan ditu aurrera bere familia eta ikerketak. Aspaldi jarri zen bizi izaten Oñatin eta hantxe topatu dugu. Historigile batzuk esandako gezurrak salatzea ere egin nahi luke, hala nola euskaldunak Colon baino lehenago iritsi zirela Ameriketara, edota hemengo arrantzaleek deskubritu zutela Terranovako aberastasuna.

Arrazoi jakin bategatik bidaiatzen dugu beti, baina askotan bizitzak beste zentzu bat ematen dio gure bidaiari eta benetan beste zerbaiten bila genbiltzala esaten digu. Selma Huxley duela hogeitau urte iritsi zen Mejikotik Oñatira, lau seme-alaba eta bidaia ordaintzeko diru juxtuarekin, Terranovara joaten ziren euskal arrantzaleen dokumentuak aztertzerara, eta bere bizitzaren zati bat aurkitu zuen: Wilde koronela, amaren aldetik bere birraitona, Oñatin eta Gasteizen ibilia zela jakin zuen, Lehenengo Gerrate Karlistari buruz erreportaiak egiten, ingeles militar hark Lord Palmerston-i idatzitako gutunetan agertzen duenez. "Oilo ipurdia jarri zitzaidan, ikaratuta gelditu nintzen", dio Selmak, kasualitate harrigarriaren aurrean.

Ingalaterran jaio, Kanada eta Mejikon bizi eta azken hogeitau urteak Oñatin

Martinen heriotz latza

TERRANOVATIK kanpo ere aurkitu du Selmak euskal arrantzaleei buruzko albisterik, adibidez Villafrancako Martin delako bati buruz apaiz batek islandieraz jarritako bertsoak. Martin hau 14 urtetarako Terranovara joana zen, eta 20 urterekin Islandiara heldu zen baleak harrapatzerara. Bere untzia hondoratu eta itxuraz ez zen oso jende kristaua zegoen lekura iritsi, heriotz izugarria eman bait zioten. Oso kultoa zela dio Selmak, latina zekien, eta Islandiako biztanleek, azti bat zelakoan, edo bere jakinduriak botere handia eman zezaiokeela pentsatuaz, hondartzan hil zuten. Bertsoak itzultzeko lau lagunen beharra izan du Selmak, tartean bi islandiar. Azken zatiak irakurri dizkit, eta bertan dioenez, "Grimur delako gudari batek aizkorakada bat jaurti zion Martini ezterrira, baina ez zuen ondo jo eta klabikulan errebotatu zuen aizkorak. Martin korrika hasi eta itsasoan murgildu zen, ihesi. Islandiarrak bere atzetik ekin zioten txalupa batean, eta harriak botaka, batek kopetan jo zuen Martin eta orduan berriro lehorrera eraman zuten. Biluztu ondoren, sabela ireki zioten, eta harriztar bat loturik haren gorputzean itsaso barrura eraman eta han bota zuten".

eman ditu, lotan zeuden dokumentuak berreskuratzen, "harrigarria da baina mende askotako dokumentuak daude inork sekulan aztertu ez dituenak. Espero dut sortuko dela belaunaldi bat bere historiaz kezkatuago eta emankorrago".

Hala ere, beste herrialde bateko ezjakintasunak ekarri zuen hona: "Kandadan ez zekiten ezer hainbeste urtez, mendez, hara joaten ziren euskal arrantzaleei buruz, orduan sortu zen ikertzeko asmoa. Lendabiziko hilabeteetan gauza izugarriak aurkitu nituen, adibidez XVI. mendeko dokumentu bat non Joanes Lezokoak txalupak saltzen dituela eta horrelakoak kontatzen den. Hori da Ifar Ameriketara idatzitako lehen dokumentua, hemen zegoena. Aurkikuntza hori ikusirik Kanadako Artxibategi Nagusiak urtero sei hilabete-tako bekak ematen zizkidan, eta horrela moldatu naiz denbora guzti honetan, urte erdiko diruaz urtebete bizitzen, haseran oso gaizki pasatu genuen, pentsa, alarguna, lau seme-alabekin, ingelesezko klaseak emanez ibili nintzen". Dena den, Euskal Herria ez zuen ezezaguna Selmak, "nere senarra arkitektoa zen, eta Oñatira ekarria ninduen aurrez berak hemengo arkitektura estudiatzen zuen eta. Gure aitaren lagun batzuk ere Gerra Zibilean ibili ziren, brigada internazionalan".

Euskal Herriari buruz ari dela "España" ateratzen bazaio nahi gabe, barkamena eskatzen dit, abertzaleekiko errespetoaz bezala, baina gogor ukatzen ditu nazionalismo erromantikoak asmatutako gezurrak, adibidez euskaldunak Colon baino lehenago heldu zirela Terranovako lurraldeetara. "Hori esaten duenari ez iezaiozu kasurik egin, Colon baino lehenago Ameriketara iritsi ziren bakarrak bikingoak dira, Kanadako ifarraldera, Colon baino 500 urte lehenago, baino ez ziren behera jaitsi. Colonen ondoren Terranovara lendabizi iritsi zirenak bretoiak eta portugaldarrak dira, gero euskaldunak".

Guzti hauek nola jakin daitezkeen galdeturik, burua mugitzen du: "Dokumentuak aztertuz, urte askotako pazientziatziaz. Adibidez, lehenengoetako dokumentu batean aurkitu dudanez, Terranova eta Labrador penintsularen artean dagoen Badia Handia kanala lendabizikoz zeharkatu zuena bretoi bat izan zen, Jack Cartier deitua. Ba hara iritsi aurretik badakigu, dokumentu horren bidez, Terranovako Saint Johns portutik beheraxeago dauden irla batzuetan Martin D'Artaleku eta bere arrantzaleei mermelada barrikak erosi zizkietela, 1530. urtean".

Selmak dio gai hau aztertu duten aurrekoek gauza faltsu asko esan dituztela, eta mapa handi baten gainean argi-

tzen dizkit horietako batzuk, lekua aurkitutakoan azentu ingelesez jantzitako "hemen" ozenaz seinatuaz. "Bereiztu behar dira bi harrapaketa ezberdin, bakailoarena, Terranovan egiten zena, eta balearena, Labradorren egiten zena, handik 700 kilometrotara.

Terranovara abiatu ziren lehen euskaldunak, portugaldar eta bretoiek han bakailao izugarri zegoela esanda joan ziren

Terranovara abiatu ziren lehen euskaldunak, portugaldar eta bretoiek han bakailao izugarri zegoela esanda joan ziren. Bakailaotan ari zirela ikusten zuten Badia Handiko estretxoan baleak pasatzen zirela, eta hasieran bat edo bi hil zituzten, gero gehiago, eta azkenik barku batzuk baleetan espezializatu ziren, zazpi edo zortzi arpoilari bikain eta beldurgabeak eramanez haruntza, baina hori hogeitertara hasi zen, eta ez historigile askok esan duen bezala, euskaldunak Bizkaiko golfotik baleei segika hasita iritsi zirela Terranovara. Hori gezurra da".

Hara hasi baino lehenago euskaldunak Irlandara joaten ziren, edo Galiziara. Euskaldunak nora joaten ziren oso ondo zekiten beste froga bat 1632ko testamentu batean aurkitu du Selmak. Testamentu hori San Jorge irlan egina

da. Ea-ko mutil baten testamentua idazten du Antonio Iturribalzagak, Gaztañeta ospetsuaren aitonak, esanez, hasieran, 48,50ko latitudean daudela, gaurko tresnekin neurtuta guztiz zuzena den datua, "Testamentu gutxi izango dira munduan zein latitudetan egina dauden jartzen dutenak, harrigarria da kasu hau", dio Selmak irribarrez.

Etengabe agertzen dira Selmaren hizketaldian Huxley sendiarte ugariko pertsonaien erreferentziak. 107 urteko birramona bat bizi dute oraindik, eta haren urtebetetzea ospatzera 150 Huxley-tar bildu ziren iaz. Aitaren aldeko birraitona biologo ospetsua izan zen joan den mendean, Thomas Henry Huxley, bere aita diplomatikoa, baina familian ospetsuena dudarik gabe Aldous Huxley idazlea da, bere aitaren lengusua, 'Un mundo feliz' liburuaz mundu erdia txunditu zuena. "Badakizu, Kennedy hil zuten egun berean hil zen Aldous ere. Umea nintzela asko etortzen zen gure etxera, Ingalaterrara, eta gero ere bai, tarteka".

Baina berehala okertzen du hizketa gaia, nahiago du bere lanaz hitzegitea bizitza eta ahaide ospetsuez baino.

Itsasoetako detektibe

Duela hogeitertu, Gabonetan, Selma Huxley Burgosera iritsi zen, bera lau


seme alabekin. Alarguna, ez zihoan oporretara, jakinahiak bultzatako lan bat egitera baizik. Halako tropa zeukan emakume batentzat ez zen erreza artxibategirako baimena lortzea, baina Ballesteros deituriko gizon batek, artxibategikoak, inongo arazorik gabe utzi zion sarrera taldeari, hurrei mahai bat jarri, lapitzak eman eta dokumentu zaharrak kopiatzen hasteko laguntza eskaini.

Hortik etorriko zen, urte askoren lanaren emaitza gisa, Ipar Ameriketara aurkitu den untzirik zaharrenaren kokapenaren zehaztapena, buzeadoreek, Selmaren seme bat tartean zelarik, baietzatu zutena, XVIgarren mendeko San Juan untzia, Pasaiakoa eta 1985ean aurkitua. Pista Kanadatik etorri zen, han aurkitu zituzten teila zati batzuetatik. Istoria kontatzea sinplea da, aurkikuntzaren garrantzia izugarria, eta Selmaren lana deskribatzea ezina.

Terranovako leku batean arkeologo batek teila zatiak aurkitu zituen lurrean. Inork ez zekien han euskaldunik izana zenik arrantzan, eta arkeologoak indioen zera-

mika moeta bat zela pentsatu eta horrela sailkatu zuen materialeak. Selmak bazeukan, ordea, datu bat teila haien jatorria esplikatzeko: "Erosketa dokumentu asko aztertu ditut, eta banekien euskal arrantzaleek teilak eramaten zituztela hara kupelgileentzat etxetxoak egiteko, adibidez horietako dokumentu baten zehazten da 6.000 teila erosi dituela patrioiak milakoa 24 errialetan. Pista gehiago agertu ziren Burgos eta Oñatik artxiboetan, baina kokagune zehatza pleitoetatik ateratu nuen".

Pleitoetan oso deskribapen zehatzak ageri dira, adibidez, halako portura iritsi direla diote, bale bat hil dutela, halako lekuan utzi eta gauaz norbaitek ha-



Balearen arrantza (grabatua)

rrapatu egin diela balea. Orduan pleitoa sartzen du patriiak. "San Juan untzia buruz -dio Selmak- pleito batzu baziren, adibidez bi arpoilarik heuren soldatak esijitzen zituzten hondoratu ondoren, eta han zetorren gutxi gora beherako kokapena. Kostatik oso hurbil hondoratu zen, eta hamar metro hutseko sakonean. Ez nekien leku justu justua, baina gutxi gora behera bai, eta 1985ean espedizioa joan ginenean, zortea eduki eta estrainekoan aurkitu zuten".

Untziaren kaskoa nahiko egoera onean zegoen, eta Selmaren asmoa zen urte batzuk itxaron, dirua lortu eta oso



Selma Huxley: itsasoetako erregina.

osorik ateratzea, baina arkeologoek ez dute hainbateko pazientziarik eta untzia 'biluztu' egin dutela esan daiteke, tresnak, kainoiak, zeramikak, txarroak, aurkitutako dena atereaz. "Asko mindu nau horrek, hondoratutako untzia bat gauza ederra da, han dago garaiko teknika, pertsona haien lana, haien beharretara moldaturiko obra bat, eta arkeologiak ez luke hori guztia apurtu behar".

Haien bizimodu gogorra

Gisako istorioei darien erromantizismotik gutxi aurki daiteke garai hartako arrantzale euskaldunen bizitzan eta lan baldintzetan. Horren adibide diren istorioetatik hunkigarriena 1584an Gabon Gauetz hiltzen ari den arrantzale oriotarrarena dugu. Puerto Breton izeneko portuan zeuden, negu bizian, izotzak artean badia itxi gabe zeukala aprobeztaturik, lanean. Oriotarraren testamentua idazten ari denak dio, Selmaren ahotsak errepikatua, "hiru lekuko baina gehiago ez ditugu aurkitu. Eskifaia erdia lehorrean ari da lanean, eta beste erdia untzian dago lo, lanak akabatuta".

Izotzak bidea itxi aurretik aldegin beharra zeukaten, bestela ehundaka arrantzale hilko ziren, sarritan gertatu izan zen bezala, hotzak, gosez, eskorbutoz.

50 urtetan bale kopurua izugarri murriztu zuten euskal arrantzaleek, eta

neguan gero eta beranduago arte egon beharra zeukaten, badian sartzen ziren azken baleak harrapatzeko. Horre ekarri zuen izotz artean harrapaturik gelditzeko arriskua, baina baita ere, gauza berriak komertzializatzeko beharra, fokekin egin zutena. Larruak hona ekartzen zituzten, zapatariei saltzeko, eta horretan ere aurren samarrak izan ziren euskaldunak Europa osoan.

Euskaldunen aldetik lurralde haiekiko kolonizaziorik ez zen gertatu. Arrantza egin eta olio-haragiak bodegan sartu ondoren urtero itzuli egiten ziren jaioterriara. Ez ziren bertako indiarrekin ezkontzen edo bizitzen jartzen, eta arrantzale gehienak untzian bertan bizitzatzen ziren, erosoago zitzaizkien lehorreko txabolak baino. Hala ere, euskal izendegia ugari samarra da Terranovako kostaldean. Haizerik gabeko babe-sean dagoen badia bat 'Oporportu' deitzen da, atsedean lekua zelako; gaur eguneko 'Port du Choix' garai batean euskarazko 'Portutxoa' zen, eta 'Aingurtxar' da beste portu bat.

Izatez pakezaleak eta langileak, itsasuntziak ordea armaz josita eramaten zituzten, frantziar, holandar eta ingeles piratengandik babesteko. Terranovako península txiki batean gertatua kontatzen du Selmak irrifarrez. "Peninsularen alde batean oriotarrak ari ziren arrantzan, eta beste aldean euskal

frantzesak zeuden. Oriotarren patroia Pedro Etxaniz zen. Gauaz, oriotarrak lo zeudela, pirata ingelesak joan eta untziaz jabetu ziren. Arrantzaleetako bat ordea, ez dakigu zergatik, bakartia zelako, mozkortu egin zelako, auskalo, lehorrean zegoen lotan, eta esnatu egin zen ingelesek untziaz jabetu eta builaka hasi zirenean. Orduan korrika egin zuen peninsularen beste alderaino, euskal frantzesari abisu ematera, eta goizaldera berriro untzia berreskuratu zuten. Seguru egon oriotarrak lo izan ez balira ez zuketela pirata ingelesek barkurik harrapatuko. Oso gogorak ziren euskaldunak gerra kontutan".

Elkarrizketa amaieran berriro agertzen du Selmak ezjakintasunarekiko kezka, bere lan hauek eskolan ez direla behar bezala sartu oraindik esanez.

Irakurri nahi duenarentzat

Selma Huxley ez da oso idazle zalea, bere alaba Serenak dio "agrafa samarra" dela ama. Baditu bere ideiekin idatzitako 23en bat artikulua, baina bere obrarik nagusiena eta interesgarriena Etor argitaletxean kalera emandako tomo bat da, izenburu hau duena: 'Itzadua - Los vascos en el marco Atlántico Norte, siglos XVI, XVII, 1987an argitaratu zen, eta bera izan zen koordinatzailea eta beste batzuen artean artikuluegilea ere bai.